# I ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

**615**

**49/2006 ERABAKIA, urtarrilaren 31ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, foru aldundiaren ordezkariak aldatzen dira Euskal Herriko Errepideen Plan Orokorraren Batzordean.**

Euskal Herriko Errepideen Plan Orokorra arautzen duen Legearen 20.3. artikuluarekin bat etorriz, foru-organoek koordinaturik egin beharko dute lan, Euskal Herriko Errepideen Plan Orokorrean programaturik egon eta Lurralde Historiko bati baino gehiagori eragiten dioten jarduketak gauzatzeko. Errepideen Plan Orokorraren Batzordeak horren inguruko proposamenak egin ahal izango ditu, eta proiektuen koordinazioa, eta jarduketak epeetan burutzea zaindu beharko ditu batez ere.

Euskal Herriko Errepideen Plan Orokorraren Batzordeak, aipatu planaren edukia zein izango den eta nola osatuko den proposatu beharko du, besteak beste.

Egokitzat jotzen dugu, une honetan, batzorde horrek egun duen ordezkaritza aldatzea.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8. artikuluaren 9. eta 10. paragrafoetan xedatutakoa kontuan izanik, Diputatuen Kontseiluari dagokio bere ordezkariak hautatzea batzorde, organismo eta erakunde publiko zein pribatuetarako.

Horregatik guztiagatik, Diputatu Nagusiak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, ondokoa

ERABAKI DUT:

Lehenengo.- Guadalupe Martín Armentia andrearen ordez Javier de Andrés Guerra jauna, Arabako Foru Aldundiaren Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatua, jartzea Euskal Herriko Errepideen Plan Orokorraren Batzordean ordezkari titular. (Erakundeen Erregistroko 11. zenbakia).

Bigarren.- Guadalupe Martín Armentia, Arabako Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio Zuzendaria, izendatzea batzorde horretako ordezko.

Hirugarren.- Organismo, sozietate eta erakundeei aldaketa horren berri ematea.

Laugarren.- Erabaki honek onartzen den unetik bertatik aurrera izango ditu ondorioak.

Bosgarren.- Ebazpen hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko urtarrilaren 31.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

**615**

**ACUERDO 49/2006, del Consejo de Diputados de 31 de enero, que modifica la representación de la Diputación Foral de Álava en la Comisión del Plan General de Carreteras del País Vasco.**

Según el artículo 20. 3. de la Ley Reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco “los órganos forales deberán coordinarse entre sí para la ejecución de las actuaciones programadas en el Plan General de Carreteras del País Vasco que afecten a más de un Territorio Histórico. La Comisión del Plan General de Carreteras podrá articular propuestas al respecto, velando especialmente por la coordinación de los proyectos y de los plazos de ejecución de las actuaciones”

La Comisión del Plan General de Carreteras del País Vasco tiene entre sus funciones proponer criterios para la elaboración y el contenido del referido Plan.

Se considera oportuno, en estos momentos, modificar la actual representación en dicha Comisión.

Considerando lo dispuesto en el artículo 8 apartados 9 y 10 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, corresponde al Consejo de Diputados designar a sus representantes en las Comisiones, Organismos e Instituciones públicas o privadas.

En su virtud, a propuesta del Diputado General, previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,

ACUERDO

Primero.- Sustituir a doña Guadalupe Martín Armentia como representante titular por don Javier de Andrés Guerra, Diputado Foral del Departamento de Obras Públicas y Transportes de la Diputación Foral de Álava, en la Comisión del Plan General de Carreteras del País Vasco (Número 11 del Registro de Entidades).

Segundo.- Designar como sustituta en dicha Comisión a doña Guadalupe Martín Armentia, Directora de Obras Públicas y Transportes de la Diputación Foral de Álava.

Tercero.- Dar traslado de esta modificación a los Organismos, Sociedades y Entidades afectadas.

Cuarto.- El presente Acuerdo surtirá efectos desde su adopción.

Quinto.- Publicar la presente Resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 31 de enero de 2006.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.

*Foru Aginduak*

### HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

**680**

**45/2006 FORU AGINDUA, urtarrilaren 27koa, Erribera Beitiko Udal Planeamenduko Ordezko Arauetako Rivabellosako R-13/S Bizkarreta Iparra Sektoreko Plan Partzialaren espedientearen behin betiko onarpenari buruzkoa.**

AURREKARIAK

Lehena.- Udal osoko bilkuraren 2005eko martxoaren 18ko ebazpen baten bidez Rivabellosako R-13/S Bizkarreta Iparra sektoreko plan partzialari hasierako onarpena ematea erabaki zen, baita espediente hori hilabetez jendaurrean jartzea ere. Honela eman zen horren berri: Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean (37. zenbakia, 2005eko maiatzaren 16a) eta El Correo egunkarian (2005eko maiatzaren 20a) argitaratuz, eta udaletxeko iragarki-taulan jarriz. Halaber, eraginpekoei zuzenean jakinarazi zitzaien.

*Órdenes Forales*

### DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

**680**

**ORDEN FORAL 45/2006, de 27 de enero. Aprobación definitiva del expediente de Plan Parcial del Sector R-13/S Bizkarreta Norte de Rivabellosa de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Ribera Baja.**

ANTECEDENTES

Primero.- Mediante resolución del Pleno municipal de fecha 18 de marzo de 2005, se acordó la aprobación inicial del Plan Parcial del sector R-13/S Bizkarreta Norte de Rivabellosa, así como el sometimiento del expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava número 55 de 16 de mayo, en periódico El Correo de 20 de mayo de 2005, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y comunicación a los propietarios afectados.

Bigarrena.- Espedientea aztergai egon zen bitartean, ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalak, 2005eko irailaren 23ko bilkuran, erabaki zuen espedienteari behin-behineko onarpena ematea eta, Arabako Foru Aldundira bidaltzea behin betiko onarpena emateko. Espediente horri 2005eko urriaren 14an eman zioten sarrera foru aldundian.

Hirugarrena.- Espedientearen eduki formala aztertu eta osatu gabe zegoela ikusirik, 2005eko urriaren 24an udalari gabezia horiek zuzentzeko eskatu zitzaion. Azkenik, 2005eko abenduaren 27an zuzendu zituzten aipatutako gabeziak, agiri osagarriak aurkeztuz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Plan honek era xehekatuan antolatzen du ordezko arauetan industri lurzoru egoki modura sailkatu den R-13/S Bizkarreta Iparra sektorea.

Bigarrena.- Dokumentazio teknikoa aztertu eta gero, honako ondorio hau ateratzen da: ordezko arauetan ezartzen diren baldintza formalak zein edukizkoak betetzen ditu, bai eta hirigintza arautegikoak ere, ondorengo oinarrian jasotakoa izan ezik.

Halaber, araudiak jasotzen duen izapidea jarraitu du espedienteak.

Hirugarrena.- Errepideei dagokienez esan beharra dago sektorea A-4305 errepidearen ondoan dagoela, eta horren harira Herrilan eta Garraio Zuzendaritzak emandako txostena ondokoa dioela:

“A-4305 errepideari dagokionez, ez omen da kontuan hartu orain dela urte batzuk eremua osatzen duten lur-zati batzuk desjabetu zirela Rivabellosa eta N-1 errepidearen arteko lotura eraikitzeko; izan ere, lotura hori ez da azaldu ez sektorea mugatzean ez lur-zatien planoan, nahiz eta agiriko plano takimetrikoan mugarri batzuen kokapena agertu.

Beste alde batetik, A-4305 errepideari buruzko sekzio-tipoaren hutsunea sumatzen da; sekzio-tipo horretan, errepidearen mugan eremua garatzeko gauzatu behar diren elementuen egoera azaldu beharko litzateke. Hona hemen elementuok: errepidearen plataformaren egokitzapena –erreia: 3 metro zabal gutxienez; bazterbidea: 0,50 m, eta bidea luzetara drainatzeko elementua (areka edo ertz-erretena)–, errepidearekin mugakide den eta zintarriz mugatutako berdegunea, eta espaloia –azpian ubideak ditu–. Era bertsuan, lur-zatien itxituralerroa eta eraikuntza-lerroa adierazi behar dira.”

Hortaz, arrazoituta proposatu da plan partziala ondoko moduan aldatu behar dela:

“1. Eremuaren barruan (lur-zatien planoan), Rivabellosa eta N-1 errepidearen arteko lotura eraikitzeko, ordain dela urte batzuk eginiko desjabetzapen lerroa agertu behar da, honekin batera doan planoan agertu legez; izan ere, lerro hori errepidearen herri jabariko aldearen muga da, eta errepidearen titularra Arabako Foru Aldundia da. Hortaz, Arabako Foru Aldundia kontuan hartu behar da memoriaren 1.4.5. puntuan, eremuko lurron titularra baita, baita sektorea garatzeko konpentsazio proiektuan ere.

2. Ezin da aparkalekurik jarri A-4305 errepidearen ondoan, eta “zonakatze eta erabilerak” planoan argi eta garbi azaldu behar da A-4305 errepidearekiko mugakide den espaloiaren eta errepide horren plataformaren arteko berdeguneko zerrenda. Zerrenda hori zintarrien bidez mugatuko da, beste elementu batzuengandik bereizte aldera, alegia: batetik, errepidearen azaleko drainadurak (areka edo ertz-erretena) eta bestetik, espaloia.

Beste alde batetik, berdeguneko zerrenda luzatu beharko da errepidetik eremurako aurreikusitako sarbideen ertzeraino bertaraino, eta beraz, sarbideon ondoan espaloiak duen gainzabalera ezabatu, honekin batera doan planoan agertu bezala.

3. Halaber, A-4305 errepidearen ondoan ezingo da zakarrontzirik jarri, P-2 planoan agertu legez; hortaz, zakarrontziak eremuaren barruan kokatu behar dira, bertatik pasatzen diren bideetatiko baten ondoan.

4. A-4305 errepidearekiko kanalizazio paraleloetan doazen lurrazpiko zerbitzuak, hornikuntzak, eta abar espaloiaren azpitik pasatu beharko dira; espaloi hori lehen aipatu errepidearen plataformarekin mugakide den berdegunearen ondoan egongo da. Hain zuzen ere, euri uren kolektorea (P-5 planoa) espaloiaren azpian kokatu beharko da.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no hubo alegaciones por lo que el Ayuntamiento, en fecha 23 de septiembre de 2005 procedió a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el día 14 de octubre de 2005.

Tercero.- Tras haber analizado el contenido formal del expediente y habiéndolo encontrado incompleto, en fecha 24 de octubre de 2005 se requirió del Ayuntamiento la subsanación de las deficiencias, cosa que fue cumplimentada mediante la entrega de la documentación complementaria el día 27 de diciembre de 2005.

FUNDAMENTOS

Primero.- El presente Plan ordena pormenorizadamente el sector R-13/S “Bizkarreta Norte” clasificado y calificado por las Normas Subsidiarias como suelo apto para urbanizar industrial.

Segundo.- Analizado el documento técnico se ha comprobado que cumple los requisitos de contenido formal y material establecidos en las Normas Subsidiarias y en la legislación urbanística, salvo en lo descrito en el fundamento siguiente.

Asimismo, el presente expediente ha sido sometido a la tramitación regulada en la legislación.

Tercero.- En lo que atañe a la materia de Carreteras hay que indicar que el Sector es adyacente a la A-4305; y, a este respecto el informe emitido por la Dirección de Obras Públicas y Transporte manifiesta que:

“se observa que no se ha tenido en cuenta, en lo relativo a la carretera A-4305, la expropiación realizada hace años en las parcelas que forman parte del ámbito, con motivo de la construcción del Enlace de Rivabellosa en la N-1, no teniendo reflejo la misma en la delimitación del sector ni en el plano parcelario, a pesar de que en el plano taquimétrico que contiene el documento se señala la ubicación de varios mojones.

Por otra parte, se hecha en falta una sección-tipo relativa a la carretera A-4305, en la que se represente la situación, con respecto a dicha carretera, de los distintos elementos a ejecutar con motivo del desarrollo del ámbito en la margen de la carretera en la que el mismo se encuentra, como son: la adecuación de la plataforma de la carretera con carril de 3 metros de anchura mínima, arcén de 0,50 m, y elemento de drenaje longitudinal (cuneta o rigola), la zona verde colindante a la carretera y delimitada con bordillos, y la acera con sus canalizaciones bajo la misma; asimismo, debe reflejarse la situación tanto de la línea de cierres de parcela como de la línea de edificación.”

Como consecuencia propone de manera motivada que el Plan Parcial sea modificado como a continuación se indica:

“1. Deberá reflejarse dentro del ámbito (en el plano parcelario) la línea de expropiación realizada años atrás con motivo de la construcción del Enlace de Rivabellosa en la N-1, tal y como se refleja en el plano adjunto, la cual supone el límite de la Zona de Dominio Público de la carretera cuya titularidad ostenta este Diputación Foral de Álava. De este modo, la Diputación Foral de Álava deberá ser tenida en cuenta, en el punto 1.4.5 de la Memoria, como titular de dichos terrenos comprendidos en el ámbito de referencia, así como en el proyecto de compensación para el desarrollo del sector.

2. En ningún caso podrán existir aparcamientos junto a la carretera A-4305, debiendo señalarse claramente en el plano de “Zonificación y Usos” la franja de zona verde que se sitúa entre la acera colindante con la carretera A-4305 y la plataforma de dicha carretera. Dicha franja estará delimitada mediante bordillos, que establezcan su separación de los elementos entre los que la misma está comprendida: por un lado el elemento de drenaje superficial de la carretera (cuneta o rigola) y por el otro la acera.

Por otra parte, deberá prolongarse la franja de zona verde hasta el borde mismo de los accesos previstos al ámbito desde la carretera, eliminándose por consiguiente el sobreancho en la acera junto a dichos puntos de acceso, tal y como se señala en el plano adjunto.

3. Asimismo, tampoco podrán disponerse los contenedores de basuras junto a la carretera A-4305, tal y como aparece reflejado en el plano P-2, debiendo situarse los mismos en el interior del ámbito, junto a alguno de los viales que discurren por el mismo.

4. Todos los servicios, suministros, etc… que discurran enterrados en canalizaciones paralelas a la carretera A-4305, deberán hacerlo bajo la acera que se prevé junto a la zona verde colindante con la plataforma de dicha carretera. Esto debe corregirse, en particular, para el caso de colector de pluviales (Plano P-5), que debe situarse bajo la acera.

5. A-4305 errepidearen sekzio-tipoa aurkeztu beharko da; sekzio-tipo horretan, errepidearen mugan eremua garatzeko gauzatu behar diren elementuen egoera azaldu beharko litzateke. Hona hemen elementuok (oinplanoetan): bazterbidea, areka edo ertz-erretena, berdeguneko zerrenda, eta espaloia; era bertsuan, lur-zatien itxitura-lerro eta eraikuntza-lerrotaraino aurreikusitako distantziak adierazi behar dira, baita txosten honetan jasotako aldeak ere.

6. Azkenik, urbanizazio proiektuaren baitara, lehen aipatutako eremuaren aldamenean doan A-4305 errepidearen zatia egokitzeko beharrezko lanak bildu beharko dira, errepidea plan partzialean definitutako azken egoeran gera dadin, lerrokadura eta drainadura planoetan jasotako akotazioetan adierazi bezala: errepidearen galtzada, bazterbidea, drainadura gailua (areka edo ertz-erretena) hustubideekin, eta zintarrien bidez mugatutako berdegunea, bertatik hasiko baita espaloia. Drainadura gailuen dimentsionatzea errepideen arautegi bereziarekin bat etorrita arrazoitzen da.”

Horregatik guztiagatik, eta aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Erribera Beitiko Udal Planeamenduko Ordezko Arauetako Rivabellosako R-13/S Bizkarreta Iparra sektoreko plan partziala behin betiko onartzea, kontuan izanda ebazpen honen hirugarren oinarrian azaldutako aldarazpenak. Plan hori “Inmobiliaria Urbaplus, SL” enpresak sustatu zuen eta udalak izapidetu.

Bigarrena.- Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, zuzendutakoan, berriro jendaurrean jarri gabe, espedientea zuzenean igorriko zaio foru aldundiari, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea.

Hirugarren.- Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoa baino lehenago, interesatuek berraztertze errekurtsoa jar dezakete, eta beste administrazio batzuek errekerimendua, ebazpena eman duen erakunde berberaren aurrean. Horretarako, hilabete izango da, hura jakinarazi edo argitaratu ondoko egunetik aurrera”.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko urtarrilaren 27an.– Hirigintza eta Ingurumen Sailaren Diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

5. Deberá representarse una sección-tipo de la carretera A-4305, en la que se señale la situación con relación a la misma de las distintos elementos a ejecutar, los cuales se encuentran representados en los planos de planta (arcén, cuneta o rigola, franja de zona verde, y acera), así como las distancias previstas a las líneas de cierre de parcela y de edificación, en la cual se recojan todos los aspectos indicados en el presente informe.

6. Por último, dentro del Proyecto de Urbanización deberán incluirse las obras necesarias para el acondicionamiento del tramo de la carretera A-4305 que discurre junto al ámbito de referencia, para que la misma quede en la situación final que prevé el propio Plan Parcial, tal y como se desprende de las acotaciones señaladas en sus planos de alineaciones y drenaje: calzada de la carretera, arcén, dispositivo de drenaje (cuneta o rigola) con sus sumideros, y zona verde delimitada por bordillos, a partir de la cual irá la acera. El dimensionamiento de los dispositivos de drenaje se justificará, de acuerdo con la normativa específica de carreteras.”

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el Plan Parcial del sector R-13/S Bizkarreta Norte de Rivabellosa, de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Ribera Baja, promovido por Inmobiliaria Urbaplus, S.L. y tramitado por el Ayuntamiento del citado municipio, con las modificaciones que se indican en el Fundamento Tercero de la presente resolución.

Segundo.- Las modificaciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con fin de proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Lo que se publica para general conocimiento.

Vitoria-Gasteiz, a 27 de enero de 2006.– La Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, MARTA ALAÑA ALONSO.

## KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL SAILA

696

**26/2006 FORU AGINDUA, urtarrilaren 31koa, Kultura, Gazteria eta Kirol Saileko diputatuarena. Honen bidez, 2006ko San Prudentzio eta Estibalizko Andre Mari arabar jaiak iragartzeko kartelaren lehiaketarako deia onartzen da.**

Kultura, Gazteria eta Kirol Sailak, Araban 2006ko San Prudentzio eta Estibalizko Andre Mari egunak ospatzeko jaiak direla eta, jai horietarako antolatzen diren ekintzen berri behar bezala emateko, egoki deritzo jaiak iragartzeko kartela egiteko lehiaketa publikoaren deialdia egitea.

Aginduzko txostenak ikusi dira.

Horregatik guztiagatik, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- Arabako jaiak, 2006ko San Prudentzio eta Estibalizko Andre Mari jaiak, iragartzeko kartela egiteko lehiaketaren deialdia egitea. Lehiaketaren saria 1.202,02 eurokoa da, eta bakarra.

Bigarren.- Deialdi hau arautuko duten oinarriak onartzea. Oinarri horiek espedienteari erantsita daude.

## DEPARTAMENTO DE CULTURA, JUVENTUD Y DEPORTES

696

**ORDEN FORAL 26/2006, de 31 de enero, del Diputado de Cultura, Juventud y Deportes, que aprueba la convocatoria del concurso del cartel anunciador de las Fiestas de Álava, San Prudencio y Nuestra Señora de Estíbaliz 2006.**

El Departamento de Cultura, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Álava, con motivo de la celebración de las Fiestas de Álava en conmemoración de San Prudencio y de Nuestra Señora de Estíbaliz 2006, y al objeto de anunciar debidamente los actos que se programen a tal fin, estima oportuno convocar concurso público para la realización del cartel anunciador.

Vistos los informes preceptivos.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar la convocatoria de Concurso de cartel anunciador de las Fiestas de Álava, San Prudencio y Nuestra Señora de Estíbaliz 2006, dotado con un premio único de 1.202,02 euros.

Segundo.- Aprobar las Bases que regirán la presente Convocatoria, que quedan unidas al expediente.